



ZE BARRI?



URLATIK • LANDETARA

O.Alea 1996ko Ekainak 27



*Esku artean daukazuten hau
irakurtzeko gustora
asmoa daukat nazazuela
hilabetero eskura
deba garaian anai nausiek
zabaltzen dute euskera
nik ere halaxe egin nahi nuke
Gatzagatik Eskoitzara Bertsoa*

*Gurasoei agur bero bana
Pagedar eta Axtroki
beste agur bat oraintxe bertan
irakurle zaren horri
gehiago barik zabal nazazu
ëta goitik behera irakurri
nik baitut Urlatik-Landetara
gertatzen danan Ze Barri.*

LANA GURA DUGU.

Eskoriatzako langabetuek lan egin gura dute. Hori oso garbi gelditu zen apirilaren Udaletxeak bilera batera deitu zienean. Ehun pertsona baino gehiago bildu zen Kultur-Etxean, bizi duten egoerari urtenbideak bilatzeko asmotan.


Orduko bilerak honako helburu hau zeukan: Langabetuak bildu, koordinatu eta egitura bat sortu. Holan, aurrera begira lana topatu edo sortzeko aukerak aztertu eta landu ahal izateko. Helburua erakargarria izan zitzaien bertara gerturatutako lagunei eta 30 pertsonak emun zuten izena lehen urratsak emuteko.

Bilera batzuk egin dira ordutik eta, besteak beste, maiatzaren 23an Eskoriatzako Langabetuen Elkarteak zuzenduko duen Batzordea sortu zen. Orain batzorde hau dabil lanean. Estatutuak sortu behar dira, balizko aukerak landu gure dituzte, langabetuen errolda egin dute (orain arte 80 langabetuk emun du izena) eta elkarten lege barruan sartzeko gestio danak egin behar dituzte.

Oso gaztea da ondion elkarteak, baina hasi dira lanean. INEMek daukan Lan Sustapenerako Programan proiektu bat sartu dute. Udaletxeko Ingurugiro Sailaren bitartez, Eskoriatzako zaborteak garbitzeko proiektua. 4 pertsonendako lana aurreikusten da.

Hasiera baino ez da, baina azpiegitura hor dago, herriko pilotalekuko bigarren pisuan daukate lokala. Eta idatzi gura baduzue, Eskoriatzako 26 postakutxara idatzi dezakezue.

Azkenik, Elkartekoek zera argitu gura dute: Elkarteak langabetuak ezezik, aldikako langileak edo ebentualak be sartu daitezke.



UDALEKUAK 96, ESKORIATZAN

Aurten ere udalekuak izango dira Eskoriatzan, euskal giro batean murgilduta. 4-14 urtetako gaztetxoak bertan aritzen dira, goiz eta arratsalde beraiek gogoko dituzten ekintzak burutuz. Ekintzen artean batzuk aipatzearren, tailerrak, kirolak, irteerak, jolasak eta baita beste zenbait ekintza ere. Aurten egoki dute haurrek udako egun luze eta azpergarriak lagunartean igarotzeko. Egutegiari dagokionez, uztailearen 4tik 19ra iraungo dute udalekuak, honako ordutegi honekin: goizean 10:00 - 12:30 etara eta arratsaldean 15:00-18:00 etara.



UDALEKUAK GATZAGAN

Aurtengo Uztailean 16-tik 27-ra bitartean Udaleku irekiak antolatu ditugu Gatzagan 5 urtetik 16 urte bitarteko haurrentzat. 10 laguneko bi taldeetan banatu ditugu izena eman duten haur guztiak, beraz, adinaren arabera 2 programaketa ezberdin burutuko dira.

Guraso taldearen ideia izan zen udaleku hauena eta beraiekin batera antolatu dugu egitaraua, zeren gauza askotarako begiraleok gurasoen laguntza beharko dugu. Udaleku hauen helburu nagusia haur hauek euskaraz jolastu, ikasi, ... ongi pasatzea da. Lehenago ere negu aldean antzerako gauzak egin izan ditugun arren, aurten da Gatzagan udaleku irekiak antolatzen ditugun lehenengo urtea. Haurrak zein antolatzaileok oso animoso gaude, eta ahalegin guztiak egingo ditugu guraso artean sortu den proiektu berri hau aurrera ateratzeko.

... ZUK LAN ETA NIK JAI.



du eta apurka apurka jai egitaraua zehaztuaz joan da. Esan bezela, herritarrek be parte hartu dezakete batzordean, baina orain arte behintzet, talde eta kultur elkarteak izan dira jaietako ekintzak antolatzeaz arduratu direnak.

Ekitaldiak antolatzeko orduan, normalean ez da arazo haundirik egoten, talde bakoitzak oso zehatz jakiten duelako zer antolatu behar duen, beti Udaletxeko kultura saileko arduradunen laguntzarekin, jakina. Aurten, hala be, tanborrada antolatzeko arazoak bai, egon dira. Jendea ez da animetan parte hartzen.

Orain arte ekintzen prestaketa lanen gainean egin dugu berba. Baina ezin ditugu ahaztu jaietan oso eskura edukitzen ditugun zerbitzu batzuk. Udaletxeko kultura arduradunetz gainera (jaietan be lanean ibiltzen dira), jaietako ekintzaren baten ardura hartu duten antolatzaileak. TELESKOk egunero gerturaketan dizkigu jaiak etxeraino, kalera etorri ezin duenarendako. Kalera urteten dugunean, inoiz ahalegindu zarete imaginatzen jaiak taberna barik? Ikuskizunek eta ekitaldiek azpiegitura batzuk behar izeten dituzte. Ba hor ibiltzen da udaletxeko brigada dana puntuan egoteko. Osasuna be ondo zainduta edukitzen dugu, ala ez zarete gogoratzen GURUTZE GORRIA edo DYako anbulantziekin? Txikitxuenak irrikitan egoten dira barraketan ibiltzeko. Baina ez disimulatu, dantzan egin edo poteoan ibili eta gero, haundienak be behin baino gehiago ibili zarie bueltaka autotxokietan. Eta, meritua bai danek daukate, baina merito berezia kale garbitzaileek daukatena, bixamunean (bixamona haundiaz askotan) hor ibili behar besteok ixten duguna garbiketan.

Guzti horreik lanien ibiltzen dira, bakoitzak ahal duen moduan eta ahal duen neurrian, baina lanean azken finean, eta danok aprobetxetan dugu lan hori. Beraz, esaera zaharrak dioen moduan, ì ondo eginak goguan hartu eta txarto eginak parkatuî.

ONDO IBILI DANOK!



Urteroko zita heldu da. San Pedroak hamen ditugu eta jai eta parranda ederrak egiteko gertu gaude. Bai horixe, horretarako direz ta jaiak!

Baina gehienok ondo pasetako, atzean hainbat lagun ibili behar dira lanean, jaiak hasi baino lehenago eta bitartean be bai. Lan isila izaten da batzurena, ikusgarriagoa beste batzurena, baina lan haundia eta ezinbestekoa beti.

Egin ditzagun kontu batzuk. Jaietarako lehenengo urratsak apirilean emuten hasten dira, Arantxa Unzueta, Kultura sustatzaileak esan digunez. Eskoriatzako herritar eta talde edo elkarte guztiei deialdia zabaltzen zaie jaiak antolatzeko batzorde batetan parte hartu dezaten. Batzorde horrek hainbat bilera egin

Leintz Gatzaga herian aurrera joanda, Arrate baseritik aurreragotsuago joanda, zer egiten dabilzan galdetzen du jendea. Ez da, ez, alkatearen udalekurako txalet barria, ezta Dorletako seÑoriari egin diogun ermita barria be; Baizik eta San Martingo uraz aspertuta, Olaungo ura probatzeko nahia. Hau da, gatzarron bilbotarkeria.

Ekainaren hasieran haurren eguna izan zen Eskoriatzan. Deba Garaia osoko 260 haur inguru bildu ziren. Goizean auzoetan ibili ziren eta, arratsalde, danok alkartu ziren plazan ekitaldi nagusia egiteko.

Ekainaren hasieran be bai, iAmics del Cant de LíAlmuniaî abesbatzak abestu zuen Eskoriatzan. Elkartruke akordio baten bitartez etorri zirenez, Gorosarri Abesbatza Catalunyaara joango da hurrengoan.

Gatzagako emakumak, iSorginakî, eta Gatzaga eta Eskoriatzako jubilatuek ondotxo aireatuta dabilta azkenaldian. Lehenak Santanderren ibili ziren ikabiru ezinkaî eta besteak hankak bustitzera joan izren Donostiara. Hurrengoan gehiago eta hobeto.

Jai batzuren inguruan murgilduko gara orain. San Pedro Txiki jaiak izan ziren ekainaren erdialdera Eskoriatzako San Pedro eta Intxaurtxueta auzoetan. Ondo pasetako aukera ona izan zen auzo horreitako bizilagunenak eta gerturatu ziren danendako. Dana dala, keja batzuk be egon ziren. Jendearen esanetan, ibonboâ ataraten danean neurria hartzen be jakin egin behar da, eta ez 24 orduz jotzen ibili.

Apotzaga auzoko San Bernabe, ertaroko ermita inauguratu zen ekainaren erdialdean.

San Juan sua protagonista izan zen herri bietan ekainaren 24an. Eta herri bietako gazteak, 79ko kintako gazteak izan ziren Eskoriatzako makala jasoten ahalegindu zirenak. Arazo batzuk izan zituzten, baina hor dago, tente tente plazaren erdian, bera be San Pedroak ondo pasetako gertu.

AGENDA

Zinea egongo da ikusgai Eskoriatzako plazan uztaile osoan. Astean hiru egunetan ikusi ahal izango duzue pelikula. Ondo jarrita ikusi gure izanez gero, etxetik ekarri aulkia edo kojina.

Uztailaren 7an, Gatzan San Martin, uda beroko San Martin. Gatzako goierritarrek estima handian daukate San Martin eta, aurten be jai giroan, mendeetan gorde den santuaren eguna ospatuko dute uztaileko lehenengo domekan.

Leintz Bailaran izango dira Goierri auzoa esistitzen denik be jakingo ez dutenak. Gatzagako kaletik mendatean gora zoaztela, lehenagoko trenbide zaharreko zubi azpitik pasatu ahal, ezkerretara jo eta, gaintxo batean, San Martingo ermita eta auzo ederrarekin egingo duzue topo.

Meza, urtero legez, 12:30etan izango da. Ordurako auzokoek, txukun-txukun jarriko dute egun horretan baino zabalduko ez den ermitatxoa. Aipagarriak dira sarreran daukan ur-bedeinkatuaren ontzia eta baita barruan pieza baten eginda dagoen harrizko ponte be bai.

Uztailaren lehenengo domekan, San Martingo jaietan, Gatzagako kalekoek eta goierrikoek ilaukoan egingo dute, urtero moduan. Galtzaileek, ohitura den bezala, nola ez! urtean zehar eutsi beharko dizkiete irabazleen komentarioei eta burlei. Irabazleek, ordea, oilarrek baino tenteago paseatuko ditu urtebeterako irabazi dituzten buldak.

